

«TEACH-IN» BAT U.C.L.A.-N



Joan den astean, Maiatzaren 13-an, «Americans for Democratic Action» elkarteak eraturik, bost ordutako «Teach-In» bat izan dugu Unibertsitatean. «El Salvador another Viet-Nam» hitzek beren fruitua ekarri dute nonbait. Eta Armenia-ko ekintzetan oso jende gutxi baze- goen ere, El Salvador-koan jendea franko ze- goen. Zenbait mementutan batez ere.

Hitz bakar bat esan behar banu, hauxe hauta- tuko nuke: IKARAGARRIA. Europa osoan ez da gaur horrelakorik urrundik ere ikusten, ezta gure herrian ere. Baina... «aquí no pasa nada» ... edo-ta txalo ere bai, zenbaiten aldetik; «ko- munismoa zapaltzeko» dena baita on eta egoki. Lotsa ere senditu dut batzutan. Amnesty Inter- national-en izenean Michael Skadden-ek da- tuak eta fotoak erakutsi dituenean, esate batera- ko. Datu berri-berriak, jakina; joan den Apiri- lean bertan gertatu baitira, berriro, indioen eta nekazarien masa-hilketak eta «komunisten» de- sagerketak...

El Salvador-en gudu zibila dago gaur. Izkuta- tu edo disimulatu ezina. Eta, beti bezala, Arma- dak eta USA-k ezarritako «Junta» batek agin- tzen du; joan den Apirilean ospatu ziren hautes- kundeek (faltsutuak eta bortxatuak izanik ere) ez baitzuten eman «behar» zen ondorioa.

Hona hemen El Salvador-ko gobernuen ze- renda:

- 1931 - General M. Hernández Martínez
- 1934 - General Andrés I. Menéndez
- 1935 - General M. Hernández Martínez (bera)
- 1944 - General Andrés I. Menéndez (bera, bis)
- 1945 - General Salvador Castañeda
- 1948 - Consejo Militar
- 1950 - Comandante Oscar Osorio
- 1956 - Coronel José M. Lemus

1960 - Junta Militar

1961 - Directorio Cívico-Militar

1962 - Dr. Rodolfo Cerdón

1962 - Coronel Julio Rivera (urte berean, be- raz)

1967 - Coronel Fidel Sánchez

1972 - Coronel Arturo Molina

1977 - General Carlos H. Romero

1979 - Coronel Majano

1982 - Banquero Alvaro Magaña (Armadak inposatua)

Hori da Salvador-tarrek ezagutu duten «de- mokrazia».

Baina instituzioei bakarrik ez begiratzeko, zein da egoera ekonomikoa?

El Salvador-en «hamalau familiak» kontrola- tzen dute herria (lau t'erdi miloi biztanle). Ne- kazaritzarentzat balio duten lurraldeetan, %60 dago %2-ren eskuetan. Eta Estatu-produzioari begiratzuz, irabazketa guztien erdia %8-ren pol- tsikura doa.

Ondorioa hau da: El Salvador-en sei lagunek osatzen dute familia ertaina. Eta 1975-an, eko- nomistek kalkulatu zuten, \$ 704 behar zuen horrelako familia batek bizi ahal izateko (gaur- ko hamabost mila hogarleko, beraz, gutxi gora- behera). Hots, estatistikek erakutsi zuten, %80-ek irabazten zuten hori baino gutxiago. Salvador-tarrak mixeria gorrian bizi direla esa- teko, ez da sekulako irudimenik izan behar. (Burke, 1976).

Gobernuaren erantzuna hau izan da: «Escua- drones de la Muerte» delakoak; nekazarien artean «orden» jartzeko.

Oraingo gobernuan lau kristau demokrata daude, hiru «Conciliación Nacional» eta hiru ARENA (eskuindar muturrekoak). Eta parla- mentuan, d'Aubuisson dago buru (Romero

Apezpikuaren hilketa Miami-n antolatu zuena). D'Abuisson hau nolakoa den neurtzeko, xehe-tasun hau: Carter-ek USA-n sartzea debekatu ziola! (Baina orain Reagan-ek debekua altxa du; eta Parlamentu-Buru hautatua izan dela jakitean, hau esan du Enbajadoreak: «Horixe hautu demokratiko gaitza!»).

Ezkerrak ez du parte hartu, jakina, Apirileko hauteskundeetan: denbora galtzea iruditzen zaio. Indar «demokratikoe» irabazi duten bakoitzean, Armadak bota ditu hankaz gora. 1972-an, esate baterako, 18 **orduz** iraun zuen hautatutako gobernuak. Orain arteko markarik onena Araujo-k egin du 1930-an: zenbait hilabetez iraun baitzuen.

Ezkerrak, hitz batez, erreformismoa utzi du erabat; eta «Frente de Liberación Nacional Farabundo Martí» eta «Frente Democrático Revolucionario» delakoetan elkartu da (adar militarra eta politikoa, ilara horretan).

Kristau demokratek, horrela, «Escuadrón de la Muerte» eta «FLNFM» delakoen ekintza harmatuak kondenatzen ditu berdin; eta joko «demokratikoa» nahi du (nahiz Duarte bera deserritua egon luzaz, 1972-ko kolpearen ondoren).

Orain, esate baterako, bi eskualdetan ari da Junta gogor erasotzen: Morazán-en (2.500 soldadu) eta Usulután-en (2.000). Horietarik 1.500-ek USA-n jaso dute gudu «anti-guerrilla» ren hezkuntza.

«Campesino» hitz koloregabe horren atzean, askotan **Mayatar** Indioak daude, behin eta berri idatzi izan dudana bezala. Bai Salvador-en bai Guatemala-n. Otsailean, esate baterako, hau irakurri nuen Paris-ko «Nouvel Observateur»-ean: «La répression contre les Indiens Mayas dépasse tout ce que l'on peut imaginer» (Pierre Blanchet, N.O., 82-II-20). Baina asimilakuntza eta erdalkuntza aurrera joan ala, arazoaren izari hau ezabatzen da (Ulster-en bezala; eta, ondikotz, gure herrian bezalaxe).

Funtsean, halere, Stavenhagen-ek xuxenki azaldu zuenez: «Las poblaciones indígenas llegaron a sufrir los efectos de una doble opresión: como campesinos pobres, peones acasillados y lumpen-proletariado de las ciudades, padecieron una explotación característica de su situación **como clase social**; y en tanto que **grupos étnicos** en condición de inferioridad frente a mestizos y criollos, fueron culturalmente oprimidos por los portadores de la cultura dominante, es decir, sufrieron una explotación característica de la situación colonial» (1979).

Amerika-Erdiko jendeek, Almeida-k ere ongi idatzi duenez, «grupos **étnicamente** discriminados y **económicamente** explotados» dira. Ez bata bakarrik, ez bestea bakarrik. **Biak** batera.

Azkeneko bi urte honetan, sarraski ikaragarria gertatu da El Salvador-en; eta bi zifra hauek eman dira: 30.000 hil, eta 50.000 hil.



Hots: beste hainbestetsu hil ziren 1932-ko iraultzaldian.

1930-an, besteak beste, manifestazio ikaragarri bat izan zen San Salvador-en: 80.000 «campesino». Alderdi iraultzaile bakarra garai hartan, Farabundo Martí-k zuzentzen zuen Partido Comunista del Salvador. Honen indar nagusia Salvador-ko Mendebaldean; eta hemen «the majority of the workers were PIPIL and NAUHATL INDIANS, descendent of those who opposed the original Spanish conquistadors in the 16. century» (NACLA-Txostena).

Hauteskundeetan hautatua izan zen Araukok, «erreformak» agindu zituen; baina bere ministroa zen Maximiliano Hernández Generalak «kolpea» eman zuen; eta «orden» jartzen hasi zen. Aste batzutan 30.000 «komunista» garbitu zituen («Das Kapital» ez zen oraindik erdaraz agertu; eta Nicaragua-ko Sandino ez zen komunista, honek Farabundo Martí bera hasarretu arte!), Farabundo bera barne.

Zanpaketa **Mayatarren** kontra egin zen bereziki: «Persons **with Indian features** were lined up in groups of 50, and shot down by firing squads». Euskaratu beharrik ez dagoela uste dut: **indio itxura** zutenak 50 laguneko multzotan jarri, eta afusilatu. Baina irakur hau: «Indians ceased to wear traditional dress, abandoned traditional customs, and **ceased to use their native language**». Hitz batez, **etnozidio** bat gertatu zen El Salvador-en; eta horregatik daude galduago etni-hizkuntza zaharrak Salvador-en, Guatemalan baino.

«¿Son Vds. marxistas-leninistas?» galdetzen zioten orain dela gutxi Buruzagitzako kidea den Cienfuegos-i.

Erantzuna ez zen luzatu: «Somos Farabundistas».

Nork ez du ulertuko?

Txillardegí

LA, 1982 - V - 15

28
 27
 26
 25
 24
 23
 22
 21
 20
 19
 18
 17
 16
 15
 14
 13
 12
 11
 10
 9
 8
 7
 6
 5
 4
 3
 2
 1